

KARATULA

ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUA, IRAULTZEKO MAKINA BAT ETA AIREZTAPEN KANALAK GARBITZEKO ETA HORIETAKO MATERIALA BIRJARTZEKO GAILU BAT HORNITZEKO KONTRATAZIOA ZUZENDUKO DUENA

1.-Entitate kontratatzailea eta Kontratazio Organoa

- Entitate kontratatzailea: Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa S.A.U. (GHK).
- Kontratazio Organoa: GHKren Administrazio Kontseilua.

2. GHKren kontratatzailearen profilean sartzeko:

joan entitatearen web-orrira: <https://www.ghk.eus>

3. Lizitazio-iragarkien argitalpen-gastuak:

Ez

4. Onartua izateko dokumentazioa aurkezteko tokia eta epea:

- Dokumentazioa aurkezteko tokia: GHKren bulegoak (Ibaiondo Industrialdea 27, Orbegozo eraikina 3., 20120 Hernani).
- Dokumentazioa aurkezteko epea: 2015EKO OTSAILAREN 18a, 13:00AK ARTE.

5. Helburua:

Kontratuaren helburua da IRAULTZEKO MAKINA BAT ETA AIREZTAPEN KANALAK GARBITZEKO ETA HORIETAKO MATERIALA BIRJARTZEKO GAILU BAT HORNITZEA Epeleko Konpostatze Plantarako, Bergaran.

6. Kontratazio-teknika:

Publizitadedun prozedura negoziatua.

7. Exekuzio-epea.

Horniduraren exekuzio-epea HIRU HILABETEKOA izango da, kontratua formalizatzen den datatik aurrera.

8. Kontratuaren balio zenbatetsia

Gastuaren muga, gehienez, 199.000€koa izango da (BEZ kanpo).

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015 URT. 3 0


..... (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 URT. 3 0
ENE.



GHK
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa



Idazkariak,


**ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN
PLEGUA, IRAULTZEKO MAKINA BAT ETA
AIREZTAPEN KANALAK GARBITZEKO ETA
HORIETAKO MATERIALA BIRJARTZEKO GAILU
BAT HORNITZEKO KONTRATAZIOA
ZUZENDUKO DUENA**



[Handwritten signature]
Iker J. J. J.

AURKIBIDEA

1	KONTRATUAREN XEDEA	5
2	ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA	5
3	EXEKUZIO-EPEA	5
4	KONTRATUAREN LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA ETA PREZIOA	5
5	PREZIOAK BERRAZTERTZEA	6
6	KONTRATU-DOKUMENTUAK ETA KONTRAESANAREN KLAUSULA OROKORRA	6
7	KONTRATATZAILEAREN PROFILA	6
8	PUBLIZITATEA	6
9	ORDAINTZEKO MODUA	6
10	FINANTZIAZIOA	7
11	BERMEAK	7
12	KONTRATUAREN ALDAKETAK	7
13	KONTRATISTAREN OBLIGAZIOAK	7
14	KONFIDENTZIALTASUNA	8
15	KONTRATUA EXEKUTATZEA	8
16	HORNIDURA HARTZEA ETA BERME-EPEA	8
17	EZ BETETZEAGATIK, KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK	9
18	KONTRATUA SUNTSIARAZTEA	9
II. KAPITULUA.- KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA		10
19	ADJUDIKATZEKO PROZEDURA	10
20	KONTRATATZEKO GAITASUNA	10
21	PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA	11
22	DOKUMENTAZIOAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK	11
23	PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA	12



24	IZAPIDETZA ETA NEGOIAZIO FASEA.....	16
25	AURKEZTUTAKO ESKAINTZEN BALIOZTAPEN-IRIZPIDEAK.....	16
26	KONTRATAZIO-MAHAIA.....	19
27	ESKEINTZEN SAILKAPENA ETA KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA.....	19
27.1	. Eskaintzen sailkapena.....	19
27.2	ADJUDIKAZIOA.....	19
28	KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA.....	20
29	KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.....	21
30	ESKUMENEKO JURISDIKZIOA.....	21
	I.- ERANSKINA PROPOSAMENA ERREGISTROAN ENTREGATZEKO EREDUA.....	22
	II. ERANSKINA ARDURAPEKO ADIERAZPEN EREDUA.....	23
	III. ERANSKINA PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA.....	24
	IV. ERANSKINA. ABALAREN EREDUA.....	25

I. KAPITULUA. KONTRATUAREN EDUKIA

Hernani, 2015 URT. 3 0
ENE.

Idazkaririk,

1 KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Bergaran (Gipuzkoa) dagoen Epeleko Konpostatze Plantako konpostatze prozesurako iraultzeko makina berri baten eta aireztapen kanalak garbitzeko eta birjartzeko lanak automatizatzeko gailu baten hornidura, G.H.K., S.A.U.ko zerbitzuek erabilia izan dadin. Hornidura baldintza teknikoen pleguan (BTPan) adierazten diren ezaugarri teknikoekin egingo da.

2 ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Entitate kontratatzailea GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, S.A.U da (aurrerantzean GHK).

Organo Kontratatzailea da Administrazio Kontseilua, zeinak dagokionean eta ezarri beharreko zuzenbide pribatuko arauen arabera egokiak deritzon pertsonak berariaz ahaldundu ditzakeen kontratuarekin lotutako zenbait ekintza zehatz gauzatzeko.

3 EXEKUZIO-EPEA

Horniduraren exekuzio- edo entregatze-epea HIRU HILABETEKOA izango da, kontratua formalizatzen den datatik aurrera.

Entrega egingo da Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.Uk adierazten duen tokian eta unean, xedapen teknikoen pleguak ezartzen duenaren arabera. GHK-k ekipoa entregatzeko data atzeratzea eskatuko balu, adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu sor daitezkeen kostuak.

Epe hori igaro ondoren, kontratistak jakin beharko du berandutzan erori dela, GHK-k alde aurretik ohartarazpenik bidali behar izanik gabe.

4 KONTRATUAREN LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA ETA PREZIOA

Kontratuaren lizitaziorako oinarrizko aurrekontua da **EHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA EURO (199.000 €)** (BEZ gabe).

Esleipen prezioan sartua dago makineria GHK-k adierazitako lekuan entregatzea, eta Baldintza Teknikoen Pleguan ekipamendu horretarako jasotako lekuan kokatzea.

Kontratu honen prezioa izango da adjudikaziodunak egiten duen eskaintza ekonomikoa. Edozein kasutan ere, kontratuaren prezioa ezin izango da lizitaziorako oinarrizko aurrekontua (BEZ gabe) baino handiagoa izan. Kopuru hori baino handiagoak diren proposamenak baztertu egingo dira.

Kontratuaren prezioan sartuko da GHK-k adierazitako langileen prestakuntza, gutxienez 8 ordukoa, makinak erabiltzeko, BTP-aren 3. baldintzak jaso bezala.

5 PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Ez dagokio.

6 KONTRATU-DOKUMENTUAK ETA KONTRAESANAREN KLAUSULA OROKORRA

Kontratu izaera izango dute eta, beraz, alderdientzat nahitaez betebeharrekoak izango dira, jarraian zehazten diren dokumentuak eta dagozkien eranskinak.

1. Klausula Administratibo Partikularren Plegu hau.
2. Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua, Klausula Administratibo Partikularren Pleguarekin kontraesanean ez dagoen guztian.
3. Kontratua formalizatzeko dokumentua eta gero sinatuko diren kontratua garatzeko dokumentuak, hala nola ordainketa-plana.
4. Adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintza.

Adjudikaziodunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu, adostasuna adierazteko, kontratua formalizatzeko ekitaldian.

Dokumentuen terminoetan kontraesanean bat badago, elkarrekin lotura duten dokumentuak interpretatzeko kontuan hartuko da klausula honetan zein ordenatan zerrendatzen diren, eta lehentasuna izango du zerrendan besteen aurretik agertzen denak.

7 KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Gardentasuna eta kontratu-jarduerari buruzko informaziorako sarbide publikoa segurtatzeko, hargatik eragotzi gabe SPKLk agintzen duen kasuetan gaitu beharreko beste publizitate-bide batzuen erabilera, Interneteko atarian ikusi ahal izango dute kontratatzailearen profila lizitatzailleek, <http://www.ghk.eus> gunean.

8 PUBLIZITATEA

Lizitazio hau eta kontratuaren behin betiko adjudikazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

9 ORDAINTZEKO MODUA

Kontratuaren prezioa ordainduko da dagokion faktura aurkezten denean eta GHK-k bere adostasuna ematen duenean, zeinak zenbatekoaren % 5 aurreratu beharko duen kontratua sinatzerakoan.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015 URT. 30

Aprobado por Consejo de Administración. (e)an onartua

Hernani,

2015 URT. 30

ENE

**GHK**
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa

Idazkariak,

10 FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, finantziazioa aurreikusi da indarrean dagoen aurrekontuaren kontura.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA
2015 URT. 30
Aprobado por Consejo de Administración. (e)an onartuz

Hernani,

2015 URT. 30
ENE.



(Handwritten signature)

11 BERMEAK

Kontratuaren adjudikaziodunak behin betiko bermea eman beharko du nahitaez, zein adjudikazioaren zenbatekoaren (BEZ gabe) % 5 izango den, hartutako obligazioak beteko dituela bermatzeko.

Berme hori egiteko epea 10 egun balioudunekoa izango da, 29. klausulak aipatzen duen errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren (SPKLTBren) 96. artikuluan ezarritako edozein bitartekoren bidez egin ahal izango da.

Abal bezala aurkeztuz gero, plegu honetan **IV. Eranskinean** jasotako ereduaren araberakoa izango da.

Bermea osatu dela egiaztatzeko bitarteko hauek erabil daitezke: elektronikoak, informatikoak edo telematikoak. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatzailari egotzi daitezkeen arrazoiengatik, GHK-k ez du esleipenik egingo bere alde.

Berme-osoan, zein horren zati bat, dagokionean- SPKLTBren 102. artikuluan ezarritakoaren arabera bueltatuko da, berme-epea amaitu ondoren eta adjudikaziodunak kontratuaren obligazio guztiak bete ondoren.

12 KONTRATUAREN ALDAKETAK

GHK-k kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako baldintzetako bat gertatzen bada, eta betiere aldaketa horrekin lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Aldaketa posible horiek nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

13 KONTRATISTAREN OBLIGAZIOAK

Kontratistak kontratua bete beharko du horretarako ezarritako epean. Era berean, kontratu-klausuletan eta Plegu Administratibo hauetan ezarritakoaren arabera eta kontratua interpretatzeko kontratazio-organoak kontratistari ematen dizkion instrukzioak betez exekutatu beharko du kontratua.

Kontratistak honako arlo hauetan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu: lana, Gizarte Segurantzza, Segurtasuna eta Higienea eta Lan Arriskuen Prebentzioa.

Kontratistak datu pertsonaletarako sarbidea badu, 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, eta lege hori garatzen duen araudiak ezarritako obligazio guztiak bete beharko ditu.

14 KONFIDENTZIALTASUNA

Prozeduran parte-hartzaileei adjudikazioa jakinarazteari dagokionez, plegu honetan ezarritakoari kalterik egin gabe, Kontratazio Organoak ezin izango du enpresariak emandako informazio zabaldu, azken horiek informazio hori konfidentzialtzat hartzen badute, eta bereziki sekretu teknikoak edo komertzialak badira.

Kontratua exekutatzekoan eskura dezakeen informazioaren izaera konfidentziala eta kontratuan bertan izaera hori ematen zaion informazioa, edo bere izaeragatik konfidentzialtzat hartu behar den informazioa errespetatu beharko du kontratistak.

15 KONTRATUA EXEKUTATZEA

Kontratua exekutatu da Administrazio Klausula Partikularren Pleguan (AKPP) aurreikusitako epean, kontratua gauzatzen denetik zenbatzen hasita.

Ondasunak xedapen teknikoen pleguan finkatutako unean eta tokian eman beharko dira, xedapen teknikoen eta administrazio-klausulen arabera. Hala ere, GHK-k beretzat gordetzen du hitzartutakoaren aldean beste toki bat finkatzeko ahalmena, kontratua exekutatzeko den bitartean.

Kontratua kontratistaren ardurapean exekutatu da, SPKLTBren 231. artikuluan, ezinbesteko arrazoiei buruzkoan, ezarritakoari kalterik egin gabe. Artikulu hori ezarria izateko xedatu da.

Kontratua exekutatzeke zorrotz beteko dira plegu honetan eta xedapen teknikoen pleguan jasotako estipulazioak, baita kontratuaren arduradunak kontratistari ematen dizkion jarraibideak ere, kontratuaren interpretazio teknikoari dagokionez.

16 HORNIDURA HARTZEA ETA BERME-EPEA

Hornidura entregatzen denetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean gehienez ere, hornidura jaso izanaren egintza formala eta positiboa egingo da. Horretarako, Behin Betiko Hartze Akta sinatuko da.

Hornidura hartzeko baldintzetan ez badago, berariaz jasota geratuko da, eta kontratistari jarraibideak emango zaizkio akatsak konpon ditzan edo hornidura berria egin dezan, hitzartutakoaren arabera. Konpontzen edo ordeztan ez denean, GHK-k kontratistari egotziko dio ardura, eta ordaintzeko obligaziotik libre geratuko da edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Era berean, URTE Biko epea ezartzen da berme bezala, Behin Betiko Hartze Akta sinatzen den egunetik zenbatzen hasita, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean eta Administrazio Publikoaren Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako eraginak bermatzeko.

Berme-epeak irauten duen bitartean, GHK-k eskubidea izango du gaizki funtzionatzen duten edo akatsak dituzten hornitutako ondasunak berraztertzeke edo konpontzeke, hori nahikoa izango balitz.

GHK-k egiaztatuko balu bermeak irauten duen bitartean hornitutako ondasunak ez direla egokiak behar ziren helbururako, kontratistari egotzi daitezkeen funtzionamendu okerren edo akatsen ondorioz, eta ikusiko balitz horiek berraztertzea edo konpontzea ez

litzatekeela nahikoa izango hornidurarako, hornitutako ondasunak baxtertu eta kontratistaren kontura utzi ahal izango ditu, epe horren barruan.



17 EZ BETETZEAGATIK, KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK

A) KONTRATUA EXEKUTATZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Kontratista, berari egotz dakizkikeen arrazoiengatik, atzeratu egiten bada kontratua exekutatzeko epea betetzeko garaian, epe orokorrean nahiz epe partzialetan, GHK-k aukeratu ahal izango du kontratua suntsiaraztea, garantia galduta, edo zigorra ezartzea kontratu-prezioaren 1.000 euro bakoitzeko euro 1eko proportzian.

Atzeratzeagatiko zigorra kontratu-prezioaren 100eko 5aren multiplo batera iristen den bakoitzean, kontratazio-organoak erabaki ahal izango du kontratua suntsiaraztea edo aurrera jarraitzea berriro ere beste zigor bat ezarrita.

B) PRESTAZIOEN EXEKUZIO PARTZIALA EZ BETETZEA

Kontratatik, berari egotz dakizkikeen arrazoiengatik, kontratuan azaldutako prestazioen exekuzio partziala beteko ez balu, GHK-k aukeratu ahal izango du kontratua suntsiaraztea edo kontratuaren prezio totalaren 100eko 10eko zigorra kontratu-prezioaren 1.000 euro bakoitzeko euro 1eko proportzian.

C) BEHAR DEN BEZALA EZ BETETZEA

Prestazioa behar den bezala betetzen ez bada, kontratuaren aurrekontuaren % 10aren pareko zigorra ezarri ahal izango du GHK-k.

18 KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Zerbitzu-kontratua suntsiarazteko kausa izango dira SPKLTBko 223 eta 299. artikuluetan ezarritakoak, eta, oro har, kontratu-obligazioak ez betetzea, Kode Zibileko 1124. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratua garaiz aurretik suntsiarazteak honako ondorioak izango ditu:

- Kontratua bi alderdiak ados jarrita suntsiarazten denean, alderdi baten eta bestearen eskubideak GHK-k eta kontratistak balio osoz onartutakoari egokitu behar zaizkio.
- Kontratistaren erruz bete gabe geratzeagatik suntsitzen bada kontratua, sortutako kalte eta galeren ordainak eman beharko dizkio kontratistak GHKri, konfiskatutako garantia gainditzen duen zatian, eta kasu guztietan kontratu-prezioa penalizatzeko klausula bat ezarrita.

Klausula honetan aurreikusten ez den guztian, SPKLTBko 224, 225 eta 300. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.



II. KAPITULUA.- KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA

19 ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

Kontratu hau prozedura negoziatu publizatedunaren bidez adjudikatuko zaio eskaintza tekniko-ekonomiko onuragarriena aurkezten duen lizitazailari.

20 KONTRATATZEKO GAITASUNA.

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen duten eta Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan ezarritako kontratatzeke debekurik ez duten pertsona natural edo juridiko espainiar nahi atzeritarrek. Kaudimena egiaztatu eta balioztatuko da 23. klausularen f) letran ezarritako bitartekoen arabera.

Era berean, banaka edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta egin ahal izango dute, horretarako emandako ahalorde askietsiaren bidez. Pertsona juridikoaren ordezkari gisa horren kideren bat agertzen bada, dokumentu bidez egiaztatu beharko du horretarako gaitasuna duela. Kasu batean zein bestean, aipatutako kontratatzeke ezintasun arrazoiek eragiten diote ordezkariari.

Gainera, kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko behar den gaikuntza profesionala edo enpresariala izan beharko dute enpresaburuek, halakorik bada.

Pertsona juridikoak kontratuaren adjudikaziodun izan ahal izateko, nahitaezkoa da kontratuan eman beharreko prestazioak pertsona juridikoaren xede, objektu edo jardueraren esparruan sartzea, estatutuetan edo funtzio erregeletan ezarritakoaren arabera.

Edozein kasutan, GHKrekin kontratua egin ahal izango dute, espainiarrak izan gabe ere Europar Batasuneko estaturen batekoak diren enpresek, beren estatuko legeriaren arabera, kontratuan egin beharreko prestazioa egiteko gaituta badaude.

Enpresa horiek kokatuta dauden Estatuko legeriak baimen berezi bat edo organizazio jakin batekoa izatea galdatzen badu kontratuaren objektu den zerbitzua bertan eman ahal izateko, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Europar Batasuneko kide ez diren estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek Espainiako Diplomazia Misio Iraunkorraren txosten baten bitartez egiaztatu beharko dute enpresaren jatorrizko estatuak aukera ematen diela Espainiako enpresei hango administrazioarekin eta SPKLTBko 3. artikuluan aipatutako sektore publikoko antzeko ente, organismo edo entitateekin egiten diren kontratazioetan funtsean modu bertsuan parte hartzeko, Diplomaziako Misio Iraunkorraren txostena enpresak aurkeztu beharreko agiriekin batera aurkeztuz.

GHKrekin kontratuak egin ahal izango dituzte asmo horrekin eraturako aldi baterako enpresari-elkartek, nahiz eta kontratuaren esleipena horien alde egin arte elkarte horiek eskritura publikoan formalizatu beharrik ez duten, SPKLTBren 59. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

21 PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

1. Proposamenak GHKren bulegoetan aurkeztuko dira, Hernaniko Ibaiondo Industrialdeko 27. zk.ko 3. solairuan, **2015eko OTSAILAREN 18ko hamahiruak (13:00ak) arte.**

Kontratazio honen espedientea GIPIZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETAREN bulegoetan aztertu ahal izango da, Ibaiondo industrialdea 27-3, Hernanin, 08:00etatik 15:00etara, lizitazio honen iragarki hau GHKren Kontratatzailearen Profileen argitaratu eta biharamunetik hasita egun baliodun guztietan, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den arte.

2. Lizitazio hau kontratazio-organoaren kontratatzailearen profileen iragarriko da, eta webgune honen bidez atzitu ahal izango da: www.ghk.eus. Leku berean egongo da klausula administratiboen plegua eta xedapen teknikoen plegua ere.
3. Dokumentazioa postaz bidaltzen denean, enpresaburuak justifikatu beharko du zein egun eta ordutan egin duen bidalketa Posta bulegoan, eta egun horretan bertan kontratazio-organoari jakitera eman beharko dio eskaintza bidali duela telex, fax edo telegrama bidez. **Bai dokumentazioa bidaltzea eta bai bidalketa kontratazio-organoari egin zaiola iragartzea,** iragarkian adierazitako aurkezpen-epea amaitzeko **data eta ordua igaro aurretik egin beharko da.**
 - Eskaintzaren aurkezpena posta elektronikoz ere iragarri ahal izango da, baina kasu horretan, iragarpenaren bidalketa baliozkoa izan dadin, jasota egon beharko du mezua bidali eta jaso dela, baita bidaltze- eta jasotze-datak eta komunikazioen eduki osoa ere, eta igorlea eta hartzailea era fede-emailean identifikatu behar dira. Kasu horretan, kopia inprimatua lortuko da, eta erregistratu eta espedienteari erantsiko zaio.
 - Bi baldintza horiek betetzen ez badira, proposamena ez da onartua izango, iragarkian zehaztutako epea eta ordua igaro ondoren jasotzen badu GHK-k. Hala ere, adierazitako datatik hamar (10) egun natural igarotzen badira dokumentazioa jaso gabe, dokumentazio hori inola ere ez da onartuko APKLEOko 80.4 artikuluari jarraiki.
4. Parte hartzeko eskaera kontratazio-organoak adierazitako bulegoetan aurkezten denean, kontratazio-organoak eskaera hori erregistratuko du eta zigilatutako kopia bat itzuliko dio lizitatzailerari aurkeztu izanaren ordezkagiri gisa. Kopia horretan azalduko dira lizitatzaileraren izena, kontratuaren objektuaren izendapena eta proposamena aurkeztu den eguna eta ordua, **I. ERANSKINEAN** aurkeztutako ereduaren arabera.

22 DOKUMENTAZIOAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Lizitatzailerak aurkezten duten dokumentazioak betekizun eta baldintza hauek bete beharko ditu:

1. Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatzailerak baldintzarik gabe onartzen dituela plegu honetako eta xedapen teknikoen pleguko klausulak eta kontratu izaera duten gainerako dokumentuetakoak, inolako salbuespenik gabe eta ere ardurapean adierazten duela betetzen dituela klausulen plegu honen xede den kontratua egiteko eskatzen diren baldintza guzti-guztiak.

2. Lizitatzailerik bakoitzak proposizio bat baino ezin izango du aurkeztu, eta ez da aldaerarik onartuko. Era berean, proposizioa bakarka aurkeztu badu ezin izango du beste batzuekin behin-behineko elkartearen proposamenik sinatu, edo behin-behineko elkarte bat baino gehiagotan agertu. Arau horiek hausteak lizitatzailerik hark sinatutako proposizio guztiak baztertzea suposatuko du.
3. Proposamenak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira (euskaraz edo gaztelaniaz). Beste hizkuntzaren batean idatzita badago, dagokion itzulpen ofizialarekin batera aurkeztu beharko da.
4. Informazio guztia paperean inprimatuta eta euskarri informatikoan (Word, Presto 8.8, Excel, mpp, pdf, dwg... fitxategietan) eman behar da, CD batean gordea, Plegu honetan adierazitako baldintzetan, halakorik bada. Bi euskarrietako informazioa bat ez badator, paperean inprimatuta aurkeztutako dokumentazioan ageri dena gailenduko da.

Eskaintzak makinaz idatzita, edo beste modu batean mekanikoki edo informatikoki inprimatuta egongo dira, eta ez da onartuko eskuz idatzitako dokumenturik, ezta eskaintza baloratu ahal izateko baldintzak argi eta garbi ezagutzea eragozten duten hutsak, erroreak edo zuzenketak dituenik ere. Era berean, ez da onartuko APKLEOko 84. artikuluan ezarritako kasuren batean dagoen proposamenik.

Zehazki, eskaintza ekonomikoa plegu honekin batera ematen den dokumentu informatikoan aurkeztu beharko da, dokumentu horren formatua batere aldatu gabe.

5. Ez dira onartuko APKLEOko 84. artikuluan ezarritako kasuetan dauden proposamenak, eta, beraz, atzera botako dira aztertu eta onartutako dokumentazioarekin konkordantziarik ez duten proposamenak, pleguetan ezarritako eredu funtsean aldatzen dutenak, zenbatekoan errore nabarmena dutenak edo, lizitatzailerik berak aitortuta, bideraezin egiten dituen erroreak edo kontsistentziarik ezak dituenak.
6. Prozeduran aurkezten diren eskaintzak prestatzeko dokumentazioa lantzearen kostu osoa lizitatzailerik konturakoa izango da, eta ezingo dute inolako konpentsaziorik erreklamatu adjudikazioa ematen ez bazaie.
7. Eskatutako dokumentazio guztia kopia soil edo konpultsatutako kopia bezala aurkeztuko da, ardurapeko adierazpenak izan ezik. Lehen postuan sailkatu denak kopia soil ematen badu, GHK-k eskatuko dio dokumentazio originala edo Administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatua edo legeztatua eman diezaion.

23 PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa-lizitatzailerik aurkeztu beharko dute gutun-azal itxi bat, ondoren adieraziko den dokumentazioarekin, eta honako inskripzio honekin: "IRAULTZEKO MAKINA BAT ETA AIREZTAPEN KANALAK GARBITZEKO ETA HORIETAKO MATERIALA BIRJARTZEKO GAILU BAT HORNITZEKO KONTRATUAREN LIZITAZIOA". Gutun hori GHKren bulegoetan eta 21 klausulan ezarritako epean aurkeztu beharko dute.

Gutun-azalean honako informazioa adieraziko da: enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izena eta abizenak eta sinatzailearen izaera. Gutun-azala sinatuta egon beharko da.



Gutun-azalak honako dokumentu hauek edukiko ditu:

- a) **Gutun-azalean gordetzen diren dokumentuen aurkibidea.**
- b) **Parte hartzeko eskaera,** I. Eranskinaren arabera.
- c) **Enpresariaren, eta dagokionean, bere ordezkariaren jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten dokumentuak,** HAKLEOko 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Jarduteko gaitasuna honela egiaztatuko da:

- Parte-hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo entitate baten izenean jarduten denean, notario-ahalordea aurkeztu beharko da, entitate honek askietsi beharko duena, gutun-azal honetan emandako dokumentazioa sailkatzeko prozesuan.
- Lizitatzaila pertsona juridikoa denean, eraketa- edo aldatze-eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua; eta identifikazio fiskaleko zenbakia, inskripzioa galdagarria baldin bada aplikatzen zaion merkataritza-legeriaren arabera. Baldintza hori eskatzen ez denean, eskrituraren edo eraketaren dokumentuaren, estatutuen edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, non jasota agertu behar diren enpresaren jardura arautzen dituzten arauak, dagokion Erregistro ofizialean erregistratuta egon behar direnak.
- Enpresaburuak espainiarrak ez badira baina bai Europar Batasuneko estatu batekoak, kokatuta dauden estatuko legeriak agintzen duen Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo zinpeko deklarazio bat edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aplikatzekoak diren xedapen komunitarioen arabera.
- Gainerako enpresari atzerritarrek Espainiak haien estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorrek edo enpresaren egoitzari dagokion Kontsularen Bulegoak egindako txostenaren bidez egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna.
- Aldi baterako enpresen elkarte baten barruan lehiatu nahi duten enpresariak elkarte hori osatzen dutenen izenak eta baldintzak eta bakoitzaren parte-hartzea adierazi beharko dituzte, baita aldi baterako enpresa gisa formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere, adjudikatzaileak izanez gero. Aldi baterako enpresen elkarte baten barruan lehiatu nahi duten enpresariak betebeharrak solidarioak izango dituzte, eta elkartearen ordezkari edo ahalordedun bakar bat izendatu beharko dute kontratuaren ondorioz sortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko kontratua amaitzen dena arte, zenbateko handiak kobratzeko edo ordaintzeko eman dezaketen ahalorde mankomunatuak kalterik egin gabe.

Enpresariaren aldi baterako elkarte osatzen duten bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, Plegu honetan aurreikusitakoaren arabera. Horietaz gain, elkartearen partaide bakoitzarentzako egiaztatutako ezaugarriak izango dira kontuan, aldi baterako elkartearen kaudimena

zehazterakoan, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 52. artikuluan aurreikusitakoari kalterik egin gabe. Azken horrek Administrazio Publikoaren Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorra (APKLEO) onartzen du, eragin hauetarako erabat ezargarria dena.

d) **Berriazko eta ardurapeko adierazpena, II. Eranskinean** jasota dagoen ereduaren arabera. Adierazpen horretan deklaratu beharko du ez duela kontratatzeko debekurik SPKLTBko 60. artikulua ezarritakoaren arabera, bereziki aipatuz artikulua honetako 1. ataleko c) letrak dioena, hau da, ez duela zehapen irmorik jaso laneko segurtasun eta osasunaren arloan arau-hauste larria egiteagatik; eta beteta dituela zergen eta gizarte segurantzaren arloko obligazioak, APKLEO erregelamenduko 13. eta 14. artikuluetan zehazten direnak.

e) **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergen (JEZen)**, kontratuaren objektuari dagokion epigrafean **alta emanda dagoela egiaztatze**ko agiria, alta aurkeztuz, une horretako ekitaldikoa bada, edo azkeneko JEZ ordainagiria aurkeztuz, gainerako kasuetan; eta edozein kasutan ere, zerga horren matrikulan ez duela baja eman deklaratzeko duen ardurapeko adierazpena aurkeztu baita ere (**II. Eranskina**).

f) Gainera, entitate lizitatuak jarraian adierazten diren **kaudimen-baldintzak** bete beharko ditu lehiaketa publikoan parte hartu ahal izateko:

f.1) **Kaudimen tekniko eta profesionala** SPKLTBko 77. artikulua arabera egiaztatuko da, dokumentu hauek aurkeztuta:

- a) Azken bost urteetan egindako hornidura nagusien zerrenda, adieraziz horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publikoa edo pribatua. Egindako hornidurak organo eskudunak igorritako edo ikus-onetsitako egiaztagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko entitate bat edo erosi pribatu bat denean, horrek igorritako egiaztagiri baten bidez, edo, horrelako egiaztagiririk ez izanez gero, enpresaburuaren berriazko adierazpen baten bidez.
- b) Kontratua exekutatze erabiliko diren langile teknikoak edo unitate teknikoak, enpresaren barrukoak edo kanpokoak, adieraztea, bereziki kalitatearen kontrola dutenak.
- c) Hornitu beharreko produktuen laginak, deskribapenak eta argazkiak. Sektore publikoko entitate kontratatzaileak eskatuz gero, haiek benetakoak direla egiaztatu behar ahal izango da.

f.2) **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa** SPKLTBko 75. artikulua arabera egiaztatuko da, dokumentu hauek aurkeztuta:

- a) Urteko negozio-bolumena edo, hala badagokio, kontratuaren xedearen jarduera esparruko urteko negozio-bolumena lizitazioaren iragarpenean eta kontratuaren pleguetan eskatzen den zenbatekoa bider bi edo gehiago.

- b) Arrisku profesionalen kalte-ordaineko aseguru baten egiaztagiria lizitazioaren iragarpenean eta kontratuaren pleguetan eskatzen den zenbatekoa bider bi edo gehiago.

g) Atzerriko enpresek: Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen direla jasotzen duen aitortpena, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera ororentzako, eta dagokionean, lizitatzailari egokitu litzaiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez.

Gainera, erkidegoko atzerriko enpresek Espainian sukurtsal bat irekita dutela egiaztatu beharko dute, beraien eragiketak egiteko ahaldunekin edo ordezkariekin, baita Merkataritza Erregistroan erregistratuta daudela ere.

Enpresa horiek aurkezten duten dokumentazioa gaztelaniara edo euskarara ofizialki itzulita egongo da, HAKLEOren 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

h) Helbide elektronikoa, prozedura honen ondorioz egin beharreko jakinarazpenak egiteko, SPKLTBren 151.4. artikulua araberako eta hor aurreikusitako eraginekin.

i) Memoria teknikoa

Xedapen Teknikoen Pleguko 4. atalak ezartzen duenaren arabera, lizitatzailak egiten duten eskaintzan memoria tekniko bat jaso beharko dute, non, gutxienez, atal horretan bertan deskribatutako ezaugarri teknikoak zehaztuko diren. Era berean, XTPko 5 atalean jasotako zehaztapenak xehatu beharko dira, lizitatzailak eman dezakeen laguntza teknikoari eta makineriaren erabilera eta mantenimenduaren inguruko prestakuntzari buruz.

j) Proposamen ekonomikoa

Lizitatzailak aurkeztu beharko dute Plegu honen **III. Eranskinan** jasotako eredura egokitutako proposamen ekonomikoa bat.

Dokumentu honetan esleitutako zenbatekoan obrak kontratatzeagatik eta exekutazeagatik sortutako edo sortuko diren gastu guztiak sartuta daudela ulertuko da, ondoko hauek, zehazki:

- Kontratua formalizatzeko gastuak, dagokionean.
- Adjudikaziodunak kontratatutako zerbitzua gauzatzeko egin beharreko gastuak, besteak beste, gastu orokorrak, finantzarioak, aseguruak, tasak, fidantzak, saiakuntzak, garraioa eta desplazamenduak; baita bere kargura dauden teknikarien eta laguntzaileen ordainsariak eta dietak ere, zein plegu honetan aurreikusten diren beste gastuak ere.
- Edozein motatako zergak, BEZ barne, baita kontratuak irauten duten bitartean ezarri edo alda daitezkeen beste edozein ere.
- GHK-k adierazitako langileen prestakuntza makineria bi urteko epean erabiltzeko.

GHK,S.A.Uk proposamenaren edukia egiazkoa dela egiaztatu ahalko du, adjudikazio baino lehen eta ondoren eta kontratuak irauten duen bitartean. Enpresak aurkeztutako datuak eta baldintzak gezurrezkoak badira, kontratua suntsiarazi egin daiteke, hala badagokio, kontratistari egotz daitekeen ez betetze arrazoiengatik, eta eratutako behin betiko fidantza galduko da.

Proposamena enpresa-talde batek egiten badu, talde hori osatzen duten guztiek sinatu beharko dute proposamena.

Lizitatzaileraren batek esleipen irizpideekin lotutako dokumentazioa ekarriko ez balu, edo dokumentazio horrek aurreko paragrafoetan eskatutako baldintza guztiak izango ez balitu, lizitatzaille horren proposamena ez da balioztatuko dagokion irizpidearen atalean.

Aurreko a) eta d) letretan adierazitako baldintzak egiaztatu ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialaren, edo Estatuko Lizitatzaileren eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialaren ziurtagiri baten bidez, edo erkidegoko sailkapen-ziurtagiri baten bidez SPKLTBren 84. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ziurtagiri hori lizitatzaileren aitortzen arduratsuekin batera aurkeztuko da, non lizitatzailleak adieraziko duen dagokion ziurtagirian jasotzen diren baldintzak ez direla aldatu.

24 IZAPIDETZA ETA NEGOZIAZIO FASEA

GHK-ko langile teknikoek kalifikatuko dute garaiz eta behar den moduan aurkeztutako dokumentuak eta, zuzentzeko moduko akats edo hutsik antzematen badute, epe bat emango diote lizitatzaileri, gehienez hiru (3) egunekoa, akats edo huts horiek zuzen ditzan.

Aurkeztutako dokumentazioan antzemandako akats edo hutsak zuzendutakoan, hala dagokionean, eta eskatzaileen nortasuna eta kaudimena egiaztatutakoan, negoziazio-fasea hasiko da, alderdi ekonomiko eta tekniko hauei buruz.

Negoiazioa honako alderdi ekonomiko eta teknikoetarako buruzkoa izango da: (prezioa, berme-epea, mantentze-lanetarako lantegien hurbiltasuna, hobekuntzak, etab.).

25 AURKEZTUTAKO ESKAINTZEN BALIOZTAPEN-IRIZPIDEAK.

Honako hauek dira aurkeztutako eskaintzen balioztapen-irizpideak:


25.1. Adjudikazioa egiteko irizpideak, formula aritmetikoak ezarriz balioztatzen direnak: 60 punturaino

A) PREZIOA; 50 punturaino

Onartutako proposamenei dagokien eskaintza ekonomikoen puntuazioak interpolazio linealaren bidez kalkulatu dira, honako taulan eta grafikoan xehatzen diren baja ekonomikoaren maila bakoitzeko puntuak definitzen duten zuzenen arabera:

(Handwritten signature)
Idazkarikak,

B _i (%)	PUNTUAZIOA
0	0
5	38
10	44
15	47
20	49
25	50
>25	50



Baja ekonomikoa (B_i) da lizitazio motaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea, lizitazio motarekin zatitua, bider 100.

Baja esanguratsutzat hartzen da lizitazio motari dagokionez (186.000 euro) bajaren % 25ari dagokiona. Baja esanguratsua baino baja ekonomiko handiagoa eskaintzen duten eskaintzei emango zaien gehienezko puntuazioa 50 puntukoa izango da.

Honako taula honetan ezartzen da Baja ekonomikoaren maila bakoitzari dagokion puntuazio ekonomikoa kalkulatzeko ekuazioa:

BAJA EKONOMIKOAK	PUNTUAZIOA
$0\% \leq B_i \leq 5\%$	$P= 7,6 * B_i$
$5\% \leq B_i \leq 10\%$	$P= 1,2 * B_i + 32$
$10\% \leq B_i \leq 15\%$	$P= 1,6 * B_i + 38$
$15\% \leq B_i \leq 20\%$	$P= 0,4 * B_i + 41$
$20\% \leq B_i \leq 25\%$	$P= 0,2 * B_i + 45$
$B_i > 25$	$P= 50$

Balorazio ekonomikoa egiteko, onartutako oinarritzko eskaintzak edukiko dira kontuan bakarrik.

Batzuetan, neurrigabetzat edo arintzat har daiteke onartutako oinarritzko proposamen guztien bajaren ehunekoen neurri aritmetikoaren aldean 10 unitate baino gehiagoko ehunekoa duen proposamen ororen baja, eta horren aitortzea egiteko beharko dira: Administrazio Kontseiluaren adostasuna, proposamen horretan ustez jasota egongo liratekeen lizitatzailerik guztiei informazioa eskatzea aldeaz aurretik, baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza tekniko ere.

B) ENTREGATZEKO EPEA; 10 punturaino

10 punturaino eman ahalko dira, 0 puntu emanez 3 HILABETEKO (12 aste) entrega-epa duen eskaintzari, eta 10 puntu entrega-epa motzena duen eskaintzari.

Gainerako puntuak estrapolazio linealaren bidez emango dira, aste kopuruaren arabera.

25.2. Adjudikazioa egiteko irizpideak, formula aritmetikoak ezarriz balioztatzen ez direnak: 40 punturaino

A) EZAUGARRI TEKNIKOAK: 24 punturaino

24 punturaino esleitu ahal izango zaizkio, GHK-ko teknikariek aurkeztutako eskaintzen arabera egindako balioztapenaren bidez, Epeleko Konpostatze Plantaren beharretarako proposamen egokienari, palaren zein bere osagaien ezaugarri teknikoek dagokienez, baita bere xehetasun- eta zehaztapen-mailari dagokienez ere.

B) MANTENTZE-LANA: 8 punturaino

8 punturaino esleitu ahal izango zaizkio, GHK-ko teknikariek aurkeztutako eskaintzen arabera egindako balioztapenaren bidez, Epeleko Konpostatze Plantaren beharretarako proposamen egokienari, honako ezaugarri hauei dagokienez:

- Biltegiaren eta proposatutako mantentze-lanen lantegiaren arteko hurbiltasuna.
- Erabileraren arabera higaduragatik ordeztu beharreko piezen xehetasun maila, baita xehatze ekonomikoa ere.

C) HOBKUNTZAK; 8 punturaino

8 punturaino esleitu ahal izango dira, GHK-ko teknikariek aurkeztutako eskaintzen arabera egindako balioztapenaren bidez.

Lizitatzailerik plegu honen hobekuntzak proposatu ditzake, egokiak iruditzen zaizkion bitartekoak eskainiz, eta proposatutako hobekuntzaren ezaugarri teknikoak, ekonomikoak eta frogagarriak zehaztuz, zenbatuz eta balioztatuz.

Horrek inoiz ere ez du suposatuko kostu handiago bat GHKrentzat.

dazkariak



26 KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahai gisa jardungo du GHK, S.A.U. ren Kontratazio Mahaiak.

27 ESKEINTZEN SAILKAPENA ETA KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA

27.1 . Eskaintzen sailkapena.

GHK-ko langile teknikoek kalifikatuko dute garaiz eta behar den moduan aurkeztutako dokumentuak eta, zuzentzeko moduko akats edo hutsik antzematen badute, epe bat emango diote lizitatzailari, gehienez hiru (3) eguneko, akats edo huts horiek zuzen ditzan.

GHK-ko Zerbitzu Teknikoek dagokion Txosten Tekninoa idatziko dute, eta jasota utziko dituzte bidalitako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, onartze- eta bazterte-arrazoiak eta egindako negoziatioak. Txosten hori Kontratazio Mahaiari aurkeztuko zaio.

Kontratazio Mahaiak bere proposamena egin aurretik beharrezkoak diren txosten teknikoak eta juridikoak eskatu beharko ditu, kontratazio organoari egingo dion eskaintzen sailkapenari dagokionez.

Kontratazio-organoak goitik beherako ordenan sailkatuko ditu aurkeztutako proposamenak, pleguan adierazitako adjudikazio-irizpideen arabera, eta kontratua adjudikatuko dio ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari, Kontratazio Mahaiak egindako adjudikazio-proposamena ikusirik.

Kontratazio-organoak **eskatuko dio ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatzailari hamar (10) egun balioduneko epearen barruan,** eskakizun hori jaso eta biharamunetik hasita, honako frogagiriak aurkez ditzan:

- adjudikazioaren prezioaren % 5eko behin betiko bermea jarri duela, eta
- zergekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen obligazioak beteta dituela, edo kontratazio-organoa baimenduko duela horien ziurtagiria zuzenean jasotzeko. Ziurtagiri horiek elektronikoki, informatikoki edo telematikoki igorri daitezke, pleguetan beste zerbait ezartzen ez bada.

Eskakizun hori aipatu epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzailak bere eskakizuna baztertu duela ulertuko da, eta ondorioz, hurrengo lizitatzailari, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera, dokumentazio berdina eskatuko zaio.

27.2 ADJUDIKAZIOA.

Kontratazio Organoak kontratua esleitu beharko du dokumentazioa jaso eta hurrengo bost (5) egunetan.

Esleipena egiteko neurriak hartuko dira, hautagaiei edo lizitatzailari jakinarazi egingo zaie, eta aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Jakinarazpena egiteko, hartzaileak jaso izana agerian utz dezakeen edozein bide erabil daiteke. Zehazki, lizitatzailak eskaintza aurkezterakoan Plegu honen V. Eranskinean adierazitako helbide elektronikoaren bidez egin daiteke, 2007ko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrak zerbitzu publikoetara bide elektronikoz sartzeari buruzkoak, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala ere, jakinarazpena errefusatutzat –azaroaren

26ko 30/1992 Legearen 59.4. artikuluan aurreikusitako ondorioekin jotzeko epea bost (5) egunekoa izango da.

Aukeratutako lizitatzailleak beharrezko baldintzak betetzen ez dituelako kontratua ezin denean adjudikatu, beste lehiaketa berri bat egin aurretik Administrazio Kontseiluak adjudikazio berri bat egin diezaioke haren ondorengo lizitatzailari edo lizitatzailari horien eskaintzak sailkatuta dauden hurrenkeran, betiere, hori egin daitekeenean, eta adjudikaziodun berria ados dagoenean. Horrela eginez gero, adjudikaziodun berriari hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio Plegu honen 25.1. klausulan adierazitako dokumentazioa aurkez dezan.

28 KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzen denean burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, bost (5) egun balioduneko epean, adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita, SPKLTBko 151.4. artikuluan aurreikusitako eran.

Hala ere, adjudikaziodunak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik:

- Pleguetan eskatzen den aseguruaren polizaren eguneratutako ordainagiriaren kopia kautoa.
- ABEEa legez eratu dela egiaztatzen duen ziurtagiria, dagokionean.
- Edozein kasutan ere, aipatu Jarduera Ekonomikoen Zergaren matrikulan bajarik ez dela eman ziurtatzen duen aitorden arduratsua gehitu beharko da.

Adjudikaziodunak eska dezake kontratua eskritura publikoan egitea. Kasu horretan, formalizazioari dagokien gastuak bere kontura izango dira.

Kontratua formalizatzeke egintzan bertan, eta kontratua sinatzearekin batera, adjudikaziodunak sinatuko ditu Administrazio Baldintza Partikularren Plegu hau, Xedapen Teknikoen Pleguak zein berak aurkeztutako eskaintza ere. Horrela, jasota geratzen da jakinaren gainean eta ados dagoela.

SPKLTBren 155. artikuluan aurreikusitakoaren babespean, kontratua egiteari uko eginez gero edo prozedura hau bertan behera utziz gero, GHK-k finkatuko du lizitazioak lizitatzailari sortutako gastuen konpentsazioa, lizitatzailleak entzun eta ziurtagiriak jaso ondoren.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua formalizatzen ez bada, GHK-k kontratua suntsiaraztea adostu dezake, interesatua entzun ondoren, eta kalte-galerak ordainduz.

III. KAPITULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENEN JURISDIKZIOA

29 KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu honen izaera pribatua da, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 20.1 artikulua arabera, zeinaren bidez Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (SPKLTB) onartzen den. Kontratu honek Administrazio Klausula Partikularren Plegu (AKPP edo Plegua) honetan eta bere eranskin guztietan, Xedapen Teknikoen Pleguan, zein gainerako kontratuzko dokumentuetan ezarritakoa beteko du, 6. klausulan ezarritako baldintzen arabera.

Kontratuaren prestakuntzari, adjudikazioari, ondorioei eta iraungipenari dagokionez, kontratuak, esan bezala, beteko ditu Klausula Ekonomiko Administrazioen Plegu hau, Xedapen Teknikoen Plegua, eta GHKren Kontrataziorako Barne Jarraibideak, eta horietan aurreikusten ez diren kasuetan, zuzenbide pribatuaren arauak.

Gainera, SPKLTB eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean HAKLEO) osorik bete beharko dira Plegu honek araudi horiek berariaz aipatzen dituen kasuetan.

30 ESKUMENEN JURISDIKZIOA

Jurisdikzio-orden zibilak izango du eskumena kontratu honen prestakuntzari, adjudikazioari, ondorioei, betetzeari eta iraungipenari lotuta alderdien artean ager daitezkeen eztabaidak ebazteko.



I.- ERANSKINA PROPOSAMENA ERREGISTROAN ENTREGATZEKO EREDUA

.....jaunak/andreakNAN zenbakia duenak,
bete izenean edo, kasua bada, enpresaren ordezkari gisa,
IFZ zk....., helbidea, Tel. zkia. fax zkia.
..... eta posta elektronikoa.....

ADIERAZTEN DU:

Gaur, e(t)an (*), **"IRAULTZEKO MAKINA BAT ETA AIREZTAPEN
KANALAK GARBITZEKO ETA HORIETAKO MATERIALA BIRJARTZEKO GAILU
BATEN HORNIDURA"** kontrataziorako proposamena eratzen duen gutun-azala
entregatu duela.

Hernanin, 2015eko.....ren.....(e)an

(Aurkezlearen sinadura)

(*) Erregistroko arduradunak bete beharrekoa

GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETAREN ERREGISTRO OROKORRA

II. ERANSKINA ARDURAPEKO ADIERAZPEN EREDUA

.....jaunak/andreak, adinez nagusia,
NAN zk. duenak, eta helbidea hemen.
..... (Telefonoa, Faxa
....., posta-e); bere izenean (edo honako
merkataritza-entitatearen ordezkari gisa); IFZ
.....; egoitza soziala; telefonoa
.....faxa, posta-e ; deklaritzen du bai berak
bai ordezkatzeko duen enpresak ahalmena duela Administrazio Publikoarekin
kontratuak egiteko, jarduteko gaitasun osoa izanik, ez daudelako sartuta Sektore
Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 60. artikuluan jasotako inolako
egoeratan. Bereziki, berariaz deklaritzen du ez duela zehapen irmorik jaso laneko
segurtasun eta osasunaren arloan arau-hauste oso larria egiteagatik, SPKLTBko 60.1.
artikuluan ezarritakoaren arabera.

Era berean, deklaritzen du:

- Zerga-obligazioetan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela, indarrean dauden xedapenek ezarri bezala eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 13. eta 24. artikuluek aurreikusten duten neurrian (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua).
- Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda dagoela kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta zerga horren matrikulan ez duela baja eman.

Hernanin, 2015ekoren.....(e)an

Sinadura

III. ERANSKINA PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

“jaunak/andreak,
helbidea.....
.....(e)n, NAN zk....., telefonoa....., posta-
e..... dituenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun
erabatekoaren jabe izanik, bere izenean
(edo.....
.....(e)n,
helbidea.....(e)n, eta
NAN edo IFZ [pertsonea fisikoa edo juridikoa den kontuan izanda]
zk.....dituenaren ordezkarietan), **IRAULTZEKO MAKINA BAT
ETA AIREZTAPEN KANALAK GARBITZEKO ETA HORIETAKO MATERIALA
BIRJARTZEKO GAILU BATEN HORNIDURARAKO** prozedura negoziatu
publizitadedunaren bidezko lizitazioan parte hartzeko GHK-k egindako gonbita jasota.

DEKLARATZEN DU:

1º) Konpromisoa hartzen duela€ko prezioan exekutatzeko, BEZa sartu gabe.

Horren gehigarri, dagokion BEZa fakturatuko dela.

Prezioan sartuta daudela kontzeptu guztiak, barne hartuz, edozein arlotako gainerako zergak, gastuak, tasak eta zergen edozein arloko arielak, baita kontratistaren mozkin industrialak ere.

2º) Kontratu hau eraenduko duten klausula Ekonomiko Administrazioaren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Plegua ezagutzen dituela eta berariaz bere egiten dituela eta oso-oso onartzen.

3º) Berak ordezkari duen enpresak betetzen dituela zergen eta Gizarte Segurantzaren arloan indarrean dagoen araudiak ezarritako betekizun eta obligazio guztiak.

.....(e)n, 2015eko.....en.....(e)an

Sinadura.

IV. ERANSKINA. ABALAREN EREDUA

..... erakundeak, IFZ duenak, helbidea
.....(e)n eta, bere izenean,-k, egintza
honetan hura behartzeko nahikoa ahalorde duenak, dokumentu honen beheko aldean
azaldutako ahalordeen askiespenaren arabera, **ABALATZEN DU**
....., IFZ duena, Gipuzkoako Hondakinen
Kudeaketa, S.A.U. elkartearen aurrean,€ko zenbatekoagatik,
IRAULTZEKO MAKINA BAT ETA AIREZTAPEN KANALAK GARBITZEKO ETA
HORIETAKO MATERIALA BIRJARTZEKO GAILU BATEN HORNIDURARAKO
kontratutik eratorritako obligazioen aurrean erantzuteko.

Entitate abal-emaileak bere ardurapean deklaritzen du Administrazio Publikoen
Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001
Errege Dekretuaren 56.2. artikuluan aurreikusitako eskakizunak betetzen dituela. Abal
hau derrigorrezko abal nagusiarekin batera ematen da, eskusio- eta zatiketa-onuraren
eskubideari berariaz uko eginez, eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U
elkartearen lehen eskakizuna ordaintzeko konpromisoarekin.

Abal hau indarrean egongo da Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U elkarreak
hori kitatzeko edo itzultzeko baimena ematen duenera arte.

Hernanin, 2015ekoren.....(e)an

Sin.:

